

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Marugatzeak

GREGORIO LOPETEDI LEKUNBERRI donostiar ekintzaileak haritz hostoz elikatutako harretatik zeta ekoizteko saio ugari egin zuen 1880 eta 1890 artean. Saioa saioaren ondotik, gizon kementsu honen asmo guztiak pikutara joan ziren. Haritza bezala, pikuren pikondo ama ugaria da Irisasi mendian. Mendi honek, Oria ibaia mansotu eta ibaia eta itsasoa bata beste eta bestea bat egiten diren errioko padura, ur-ustel, istingadi, inta, ihidi eta zanpiurak ikusmenean ditu. Industria hura garatzeko adorearen arrasto ederrak hor daude, mendian ezkutatuta, industria ondare. Beherago daude baina neure gustukoagoak. Tren geltokian.

Alunez altoki dabilzan aleroek landutako erribera emankorren gainean, Irisasi mendiaren iduneko, hor dantzaten da trena. Garai batean mendialde honek zuen garrantziaren lekuko hor dauka bere magalean Txokoaldeko geralekua. Gaur toki ezin liluragarriagoko etxetxo politari ez ikusiarena egin eta geratu gabe igarotzen da trena. Merezi du, ordea, bertara-



Txokoaldeko geralekuko marugatzeak.

JAKOBA ERREKONDO

tzea. Zetaren kulturaren sasoi hartako lekuko dotoreenak bertan bai daude. Lau marugatze zuri, *Morus alba*.

Marugatzearen hostoa da zetazko kuskua egiten dituzten harren jaki gogokoena. Zetaren kulturaren jakintza Europara ekarri zenetik XIV. mendera arte, har hau bazkatzeko marugatze beltza (*Morus nigra*) erabili

bazen ere, harrezkero zuria egokiagotzat jotzen da. Zurietaoak dira Txokoalden trenari, geratu edo ez, itzala eskaintzen dietenak.

Haritzaren hostoekin zeta harrak elikatzeko saioaren porrotaren ondoren marugatzeak zabaltzeko saioaren baten lekuko ote dira geralekuko ale hauek? Ea historialari, mugi! Ez dut honoko hauek baino marugatze euskaldun zaharragorik ezagutzen. Hauek bai ondare, gure historiako paisaia kultural paregabe. Eta hor daude, utzikeriak hartuta. Hala eta guztiz ere loretan daude eta aurtengo udan ere inor gutxi dastatzen dituen fruta gozoak partituko dituzte.

3.000

Landareen esentzia-olioak sortzea beti bezain nekoso eta garestia da gaur egun. Litro bete sortzeko 3.000 kilo arrosa behar da (*Rosa centifolia*). Galorraz-olio litro bat sortzeko, berriz, *Triticum aestivum* gari hazia- ren hozitik 570 kilo eta izpilikuarena- r e n t z a t (*Lavandula angustifolia*) 300en bat kilo hosto.



Rosa centifolia.

WWW.BAKGRUNDER.COM



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Lore-lan
Lurez S. Coop.

Lorezaintza proiektuak
Mantentze-zerbitzua

Tel. 609 42 45 47 · Faxa: 943 79 49 12 · lorelan@euskalnet.net